



Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen
argazkiak, **herriz herri**

Pasaia, 1960-2010

2015eko uztaila

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

Euskal kasuan izandako
bizitzeko eskubidearen
aurkako urraketen argazkiak,
herriz herri

Pasaia, 1960-2010

2015eko uztaila

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Aurkibidea

Aurkezpena. 6

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**.

1. ETA, ETApn, ETAm, Komando Autonomoek eta ETAk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 9
 2. BVE eta GAEk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 25
 3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 27
 4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak. 31
-

II. Egiaztatze- eta ikerketa-lan handiagoa behar duten **kasuak**. 33

Erabilitako iturri eta zerrendak. 39

Aurkezpena

Euskal kasuarekin loturik 1960tik 2010era bitartean terrorismoaren eta beste edozein motatako indarkeria politikoaren ondorioz izandako bizitzeko eskubidearen urraketak bildu eta argitalpen bat prestatu du Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak. Argitalpenak berritasun nagusi bat du: datuak udalerriz udalerriz ordenaturik ematea, helburua udalei datu-base bat ematea denez gero. Liburuxka hau Pasaiari dagokiona da.

Lan hau egiteko, biktimei buruz argitaratu diren zerrenda guzti-guztiak berrikusi eta erkatu ditugu: Barne Ministerioarenak, biktimen elkarteenak, hedabideenak, egile partikularrenak, Nafarroako Gobernuarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak, zehatz esatera. Datu horiek guztiak zehatz eta zorrotz laburtzea eta integratzea lan katramilatsu eta labaina da: kontsultatu ditugun datu-baseen artean alde nabarmenak daude, eta horregatik da katramilatsua; eta, bestalde, informazio honek sufrimendu latza eragin diezaieke hainbat pertsona eta familiari, eta horregatik da labaina. Esku artean daukagun hauek ez baitira, bistan denez, datu estatistiko hutsak.

Kasu gehien-gehieni dagokienez, nahikoa informazio eskuratu dugu, eta, gainera, informazio guztiak bat datoz. Zenbait gertakariri buruz (60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan gertatutako askori buruz, batik bat), ordea, ez dugu behar beste informazio biltzerik izan, edo eskura genituenak bertsio kontrajarri eta datu nahasgarriak baino ez ziren, eta, beraz, oraindik ez daukagu haiei buruz ondorio garbirik ateratzeko modurik. Alde horretatik, lan hau ez dago behin betiko dokumentutzat hartzerik, bertan agertzen diren kasu asko eta asko osatu eta hobetu egin behar baitira.

Nolanahi ere, datu guztiak oso sakon aztertu eta erkatu ditugu, eta, beraz, garbi esan dezakegu aztergai hartu ditugun gertakarien errealitate objektiboaren irudi zorrotz eta hurbila ematen dela bilduma honetan. Lehen aldiz, bizitzeko eskubidearen urraketa guztiak bildu eta biktimen izen-abizenak ematen dira argitalpen batean, hilketa eta biktima bakar bat ere kanpoan uzteke (nahi gabeko hutsegite edo omisio bat edo beste gorabehera).

Liburuxka hauetako bakoitzak udalerriz bat hartzen du ardatz, eta datu-base bana ematen. Hala, udalerriz udalerriz egindako erretratu hauetan gaur egun arte eskura dugun informazioaren berri ematen da. berri ematen da. Dena dela, dokumentu honetan ez da biktimen aitorten ofizialik egiten: bizitzeko eskubidearen urra-

ketei buruzko informazioa ematen da. Oraindik biktimen aitorten instituzionala amaitzeke dago. Eztabaida bete-betean gaude. Hala ere, berariazko helburua beste bat izan arren, lan honek ekarpen bat egin nahi dio, berdintasun-printzipioari estu-estu jarraituz, ezinbestez denon artean egin beharreko biktimen aitortzari.

Erretratu hauen helburu nagusia hauxe da: Euskadiko udalei beren herri-hiriei buruzko ahalik eta informazio gehiena ematea, horren bidez oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko. Alde horretatik, lan-talde honek bat egiten du Euskadiko udalek horrenbestetan adierazitakoarekin, ondo ulertzen baitugu zer-nolako zailtasunak izan dituzten azken 50 urteotan indarkeriak eta terrorismoak beren herri-hirietan eragindako biktimei buruz behar beste informazio eskuratzeko (Memoriaren Mapa eta antzeko beste ekimen batzuk martxan jarri nahi izan direnean, esate baterako).

Udalerrri bakoitzari dagokion liburuxkan, udalerrri horretan bertan eraildako biktimak aipatzen dira, bai eta, beste lekuren batean hil arren, udalerrri horretan jaio edo bizitakoak ere. Edukia bi ataletan egituratu dugu: lehenbizikoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nabarmentzat har daitezkeen kasuak zerrendatzen dira; bigarrenetan, berriz, ikerketa-lan handiagoa eskatzen dutenak. Lehen blokearen barruan, hilketak egiletzaren arabera eta ordena kronologikoan aurkezten ditugu.

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak bizitzeko eskubidearen urraketatzat jotzen ez dituen kasuak, jakina, ez ditugu erretratu hauetan aintzat hartu, nahiz eta kasu horiek ere lotuta dauden gertatu zireneko indarkeriazko testuinguruarekin. Mota horretako kasuak dira, adibidez, suizidioak, indarkeriazko ekintza batean jazotako heriotzak, polizien arteko ustekabeko tiroketak eta abar. Nolanahi ere, hildako horien senitartekoek ere merezi dute, jakina, gure enpatia eta sentiberatasuna, gizalegeak hala agintzen baitu.

Hitz batean, agiri honen xedea argi-argia da: gure udaletako arduradunei oroitzapenezko proiektuak egiteko baliabide egoki bat ematea. Iraganen gurean pairatu dugun indarkeriaren aurrean, erakundeok memoria kritiko bat sustatzeko eginbeharra daukagu. Biktimen oroitzapenari bizirik eutsi behar zaio, gaur egun eta etorkizunean giza eskubideekin konprometituri jarraituko badugu; bizitzeko eskubidearekin eta pertsona guztien duintasunarekin, batik bat.

Sekula gehiago egin behar ez denari eta sekula ahaztu behar ez dugunari buruzko erretratu bana ematen da liburuxka hauetan. Erretratu diogu, hemen aipatzen direnek aurpegi eta begiak baitaizkate. Erretratu batek pertsona konkretu bat adierazten du; izen-abizen, senitarteko, adiskide, historia, amets eta proiektu konkretuak dauzkan pertsona bat, alegia. Bidegabeki hildako biktima bakoitzaren sufrimenduaren giza erretratua da agiri hau.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

1. **ETApm, ETAm, Komando Autonomoek eta ETAk** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Jerónimo Vera García

Data: 1974/10/29.

Adina: 45 urte.

Non jaioa: Fuente Álamo (Murtzia).

Bizilekua: 25 urte zeraman Donostian.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia Zibileko sarjentua.

Egilea: ETApn.

Heriotza-lekua: Trintxerpen, Donostia eta Pasaia artean.

Prozedura: Elkarri tiro eginda, atxiloketa batean.

Datu gehigarriak: Tiroketan, ETAko kide bat hil zen: Iñaki Iparragirre Aseginolatza, 18 urtekoa.

2

José María Elizegi Díaz

Data: 1976/10/04.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: Pasaia (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ezkongabea. Ezkontzekotan zen.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen auto-gidaria.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Donostiako Askatasunaren Hiribidea.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Bertan hil ziren Foru Aldundiko presidentea, Juan M^a Araluze Villar, eta hiru eskoltak: Alfredo García González, Antonio Palomo Pérez eta Luis Francisco Sanz Flores. Non-bait, José María Elizegi lan hori uztera zihoan hurrengo egunean, arma labur bat eraman behar baitzuen hartan jarraitzeko.

3

Amancio Barreiro Gens

Gertaeren data: 1978/09/02.

Gorpua agertu zen data: 1978/09/04.

Adina: 35 urte.

Non jaioa: Vilar de Cordeiro (Pontevedra).

Bizilekua: Pasai San Pedro (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Taxilaria Trintxerpen (Pasaia).

Egilea: Iparragirre Komando Autonomoa (CAA).

Heriotza-lekua: Hilda azaldu zen Aginagan (Usurbil), telefono-dei batek gorpua zegoen lekua-
ren berri eman ondoren.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

4

Ángel Cruz Salcines

Data: 1978/12/05.

Adina: 59 urte.

Non jaioa: Santander.

Bizilekua: Pasaia (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Ez zuen seme-alabarik.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Pasaia udaltzaina.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Anbulantzian, Arantzazu Ospitalera bidean, atentatu batean zauritua izan ondoren Urgull tabernan (Amara, Donostia).

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Bertan hil ziren José M^a Sarrais Llasera komisarioa eta Gabriel Alonso Perejil komisariordea ere.

5

Juan Jiménez Gómez

Data: 1978/12/13.

Adina: 58 urte.

Non jaioa: Benaoján (Málaga).

Bizilekua: Pasaia (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Pasaiaiko udaltzain-burua. Guardia Zibileko brigada izan zen Pasaian bertan, eta erretiratuta zegoen.

Egilea: Komando Autonomo Antikapitalistak (CCAA).

Heriotza-lekua: Pasaiaiko Udaltzaingoko bere bulegoan.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

6

José Espinosa Viscarret

Data: 1980/05/08.

Adina: 59 urte.

Non jaioa: Iruñea (Nafarroa).

Bizilekua: Donostia (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bost seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Pasaiako Luzuriaga Ontzioletako eresketa-burua. Artilleriako komandante erretiratua. Gipuzkoako Kirol Ordezkaritzako idazkaria.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Pasaiako lanetik irteten ari zela, bidegurutze batean. Berarekin autoan zihoan lagunari jaitzarazi eta hiltzaileek tiro egin zioten militar ohiari.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

7

José Luis Fernández Pernas

Data: 1982/06/13.

Adina: 25 urte.

Non jaioa: As Pontes de García Rodríguez (Coruña).

Destinoa: Pontevedrako Komandantzia. Errefortzu moduan zegoen Euskadin, aldi baterako.

Seme-alabak: Bi seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Pasaiako portuko garita batean zegoela, mira teleskopikodun fusil batekin tiro bat jota Errenteriako Kaputxinoak auzotik.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

8

Juan Maldonado Moreno

Data: 1983/06/22.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Adra (Almería).

Destinoa: Pasaiako portuko aduanen postua.

Bizilekua: Pasai Donibane (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Pasai Donibaneko Meipi auzoa, bera bizi zen Lezobide kaletik gertu.

Prozedura: Autoaren azpian erantsi zioten bonba-lapak eztanda egin zuen giltzari ematean.

Datu gehigarriak: Eztandak gorputza zatitu zion eta autoa txatar bihurtu zuen. Beste auto batzuetan eta inguruko leihoetan ere kalteak izan ziren eta oinezko portugaldar bat zauritu zen.

9

Lorenzo Mendizabal Iturrarte

Data: 1983/10/26.

Adina: 34 urte.

Non jaioa: Pasai Donibaneko Larrabide baserria.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Harakina. Irungo Biona harategia zeraman.

Egilea: ETAm.

Heriotza-lekua: Irungo Luis Mariano kaleko bere dendan jasotako tiroen ondorioz, Irungo Gurutze Gorrian sartu eta handik lasterrera.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

10

Ángel Manuel Facal Soto

Data: 1985/02/26.

Adina: 42 urte.

Non jaioa: Familia Galiziatik etorri zen.

Bizilekua: Pasaia (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Aitak atoiiontzi-enpresa bat zeukan, baina berak ez zuen jarraitu nahi familiako negozioan.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Trintxerpeko Náutico tabernan ogitarteko bat jaten ari zela, pertsona bat Vespa batetik jaitsi eta tiro egin zion lokian.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

11

Máximo Díaz Bardera

Data: 1985/05/21.

Adina: 35 urte.

Non jaioa: Pedro Bernardo (Ávila).

Destinoa: Donostiako Gobernu Zibileko telefonogunea.

Bizilekua: Trintxerpe (Pasaia, Gipuzkoa).

Seme-alabak: Alaba bat eta bi seme.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Ulia mendian, Donostia eta Pasaia artean, beste polizia batekin batera bakoitza bere txakurrarekin zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Bertan hil zen Francisco Rivas López polizia ere.

12

Francisco Rivas López

Data: 1985/05/21.

Adina: 50 urte.

Non jaioa: Torremocha (Guadalajara).

Destinoa: 26 urte zeraman Donostian.

Bizilekua: Pasai San Pedro (Pasaia, Gipuzkoa).

Seme-alabak: Alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Polizia Nazionaleko kidea.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Ulia mendian, Donostia eta Pasaia artean, beste polizia batekin batera bakoitza bere txakurrarekin zihoala.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Bertan hil zen Máximo Díaz Bardera polizia ere.

13

Isidoro Díez Ratón

Data: 1985/11/25.

Adina: 39 urte.

Non jaioa: Zamora.

Destinoa: Guardia Zibileko Aduanetako Zerga Zerbitzua. Bederatzi urte zeraman Gipuzkoan.

Bizilekua: Irun (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Lau seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Bi guardia zibil zainketa-lanak egiten ari zirela, Pasaiako portutik gertu dagoen taberna batetik irtetean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: Biktimarekin batera zainketa-lanetan ari zen beste agenteak, Juan Corrales Pozasek, tabernan sartuta egin zien ihes tiroei.

14

Benjamín Quintano Carrero

Data: 1990/04/04.

Adina: 48 urte.

Non jaioa: Torregamones (Zamora).

Destinoa: Pasaiako portua, baina egun hartan zerbitzu berezi bat egin behar izan zuen Intxaurrondoko kuartelean.

Bizilekua: Pasai Antxo (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Bi alaba eta seme bat. Alarguna zen eta seme-alabak umezurtz geratu ziren.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Blas de Lezo kalea, Pasai Antxon bizi zen etxetik metro gutxitara.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

15

Francisco Robles Fuentes

Data: 1991/05/06.

Adina: 21 urte.

Non jaioa: Segura de la Sierra (Jaén).

Destinoa: Pasaiako portuko Merkantzien Kontrolerako Zerbitzu Fiskala.

Seme-alabak: Ezkongabea.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Guardia zibila.

Egilea: ETA.

Heriotza-lekua: Bonba batek erdiz erdi harrapatu zuen, Pasaiako portuko kontrol-garitan zegoela.

Prozedura: Urrutitik aktibatutako bonba bat leherrarazita.

Datu gehigarriak: Beste hiru guardia zibil zauritu ziren: David Nández Minguela (23 urtekoa, larrri), Miguel Ángel Álvarez Escanciano eta José Moreno Piñero.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

2. **BVE** eta **GAE**k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Carlos Saldise Korta

Data: 1980/01/16.

Adina: 33 urte.

Non jaioa: Pasai Donibane (Gipuzkoa).

Bizilekua: 1976tik aurrera, Lezo (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Altzari-denda bateko langilea. Lezoko Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kidea. Mehatxuak jaso zituen, etxeko atea eta autoko pieza batzuk apurtu zizkioten.

Egilea: Bi taldek hartu zuten beren gain: Grupos Armados Españolesek (GAE) telefono bidez *El Diario Vasco*ri, eta BVEk *Egini*. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2008ko txostenak Grupo Antiterrorismo ETA (GAE) aipatzen du.

Heriotza-lekua: Bere etxeko atari aurrean, Lezoko Urdaburu kalean.

Prozedura: Su-armaz egindako atentatua.

Datu gehigarriak: GAEk Saldiseren hilketa bere gain hartu zuen komunikatu berean, bere gain hartu zituen Irun-Erreterian aldi horretan gertatutako emakume gazteen bahiketak eta bortxaketak.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

1

Alberto Soliño Mazachs

Data: 1976/06/12.

Adina: 32.

Non jaioa: Bouzas (Vigo, Pontevedra).

Bizilekua: Pasai Antxo (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Hiru seme-alaba.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Musikaria, bateria jotzen zuen. Etxetresna elektrikoen denda bateko jabeakidea.

Egilea: Kale-jantzian zihoan guardia zibil bat.

Heriotza-lekua: Eibarko aparkaleku batean, Jai Alai diskotekako hirugarren musika-jaialdian parte hartu ondoren.

Prozedura: Armaren ipurdiaz jo eta tiro egin zioten urdailean.

Datu gehigarriak: Familiari ez zioten eskela jartzen utzi. 2012an, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren Balorazio Batzordeak aintzat hartu zuen kasu hau.

2

Rafael Gómez Jauregi

Data: 1977/05/12.

Adina: 78 urte.

Non jaioa: Pasai Antxo (Gipuzkoa).

Bizilekua: Errenteria (Gipuzkoa).

Seme-alabak: Seme bat eta alaba bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Pasaiako portuko langile jubilatua. ANVko hautagaia 1933ko hauteskunde orokorretan. ELAko Gipuzkoako Konfederazioko presidentea 1936ra arte. 1941ean heriotza-zigorra ezarri zioten Araba Sareko kide izateagatik, baina 1946an atera zen espetxetik. Aliatuen alde egindako lana saritu zioten. Bitan alde egin behar izan zuen erbestera: 1947an, diktaduraren aurkako aurreneko greba politikoaren ostean, eta 1951ko grebaren ostean, Frantziako Jura departamenduko Sellières-era.

Egilea: Guardia Zibila.

Heriotza-lekua: Errenteriako Batzokiaren ondoan, amnistiaren aldeko astean, adin bereko adiskide batekin pasieran zebilela.

Prozedura: Su-arma batez tiro egin eta balak toraxa zeharkatu zion.

I. Bizitzeko eskubidearen aurkako **urraketak**

4. **Egiletza argitu gabe** duten urraketak **eta** **bestelakoak**

1

Ángel Portugal del Álamo

Data: 1997/02/13.

Adina: 55 urte.

Non jaioa:

Bizilekua: Pasai Antxoko Axular plaza.

Seme-alabak: Bi alaba eta seme bat.

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Donostiako autobus-gidaria.

Egilea: ?

Heriotza-lekua: Itxuraz, minbiziak jota hil zen.

Datu gehigarriak: Ez da biktima moduan agertzen ez *Vidas Rotasen* ez Calleja eta Sánchez-Cuencaren *La derrota de ETAn*, ez Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren (FVT) zerrendan, ez *El País*en "Las víctimas"en, ez Pulgarren ikerketa-lanean ez *Eginen*. Bi salbuespen daude ETA erantzule egiten dutenak: *ABC Especiales* eta AVT, beste informaziorik gabe. COVITEk "beste batzuei" leporatzen die. Egileak "zehaztu gabe" daudela aipatzen da Arartekoaren 2009ko Txostenean. Informazioa mugatuta dagoenez, zaila da datu gehiago eskuratzea. Zenbait iturrien arabera bere heriotzak zerikusia izan zuen gidatzen zuen autobusaren kontrako ustezko kale borroka eraso batekin. Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen.

II. Egiaztatze- eta ikerketa-lan handiagoa behar duten **kasuak**

1

Pedro Mari Isart Badiola

Data: 1984/03/22.

Adina: 23 urte.

Non jaioa: Azpeitia (Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Komando Autonomoetako kidea. GAIko kide izana. Bitan atxilotu zuten: lehenengoan, Guardia Zibilak emandako tratu txarren ondorioz, hiru hilabete eman zituen ospitalean. Handik denbora gutxira, Poliziak bigarren aldiz atxilotu zuen. 1982an, 21 urte zituela, hirugarren aldiz atxilotzera zihoazenean, Ipar Euskal Herrira ihes egitea erabaki zuen.

Egilea: Guardia Zibila eta Polizia.

Heriotza-lekua: Komando Autonomoetako bost kide Pasaiako badian sartu zirenean txalupa pneumatiko batean, Poliziako eta Guardia Zibileko agenteek, portuaren bi aldeetan jarriak, tiro egin zieten lehorreratzera zihoazela.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak, baita posta-tiroak ere.

Datu gehigarriak: Gertaera berean hil ziren Dionisio Aizpuru Arbelaiz, Rafael Delas Aizkorbe eta José Maria Izura Sanz, denak Komando Autonomoetako kideak. EAJk eta EEk salatu zuten ekintza hura "fusilamendu" bat izan zela. Bizirik ateratako lekuko bakarraren arabera (*Berria*, 2014/03/21), haietako bi metro bateko distantziara hil zituzten, lurtean inolako babesik gabe zeudenean. Autopsiak 113 jaurtigai kontatu zituen lau gazteen gorputzetan, eta oso gertutik egindako tiroak. Informazio gehiago nahi duenak, 1984ko maiatzaren 30eko *El País* egunkarira jo dezake. Kasuaren inguruko ikerketak birritan abiarazi dira, baita bertan behera utzi ere. 2011. urtean, akusazioak proba gehiago eskatu zituen.

2

Dionisio Aizpuru Arbelaitz

Data: 1984/03/22.

Adina: 23 urte.

Non jaioa: Azpeitia (Gipuzkoa).

Lanbidea: Delineazio-ikasketak egin zituen Azkoitiko Lanbide Eskolan. Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea. 1983an, Ipar Euskal Herrian errefuxiatu zen.

Egilea: Guardia Zibila eta Polizia.

Heriotza-lekua: Komando Autonomoetako bost kide Pasaiako badian sartu zirenean txalupa pneumatiko batean, Poliziako eta Guardia Zibileko agenteek, portuaren bi aldeetan jarriak, tiro egin zieten lehorreratzera zihoazela.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak, baita posta-tiroak ere.

Datu gehigarriak: Gertaera berean hil ziren Pedro Mari Isart Badiola, Rafael Delas Aizkorbe eta José Maria Izura Sanz, denak Komando Autonomoetako kideak. EAJk eta EEk salatu zuten ekintza hura "fusilamendu" bat izan zela. Bizirik ateratako lekuko bakarraren arabera (*Berria*, 2014/03/21), haietako bi metro bateko distantziara hil zituzten, lurlean inolako babesik gabe zeudenean. Autopsiak 113 jaurtigai kontatu zituen lau gazteen gorputzetan, eta oso gertutik egindako tiroak. Informazio gehiago nahi duenak, 1984ko maiatzaren 30eko *El País* egunkarira jo dezake. Kasuaren inguruko ikerketak birritan abiarazi dira, baita bertan behera utzi ere. 2011. urtean, akusazioak proba gehiago eskatu zituen.

3

Rafael Delas Aizkorbe

Data: 1984/03/22.

Adina: 27 urte.

Non jaioa: Iruñea (Nafarroa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea. 1983an, Ipar Euskal Herrian errefuxiatu zen.

Egilea: Guardia Zibila eta Polizia.

Heriotza-lekua: Komando Autonomoetako bost kide Pasaiako badian sartu zirenean txalupa pneumatiko batean, Poliziako eta Guardia Zibileko agenteek, portuaren bi aldeetan jarriak, tiro egin zieten lehorreratzera zihoazela.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak, baita posta-tiroak ere (debekatuta zegoen pertsonen kontra erabiltzea, poliziaren kidego guztietan). Informazio gehiago dakar 1984/05/30eko *El País* egunkariak.

Datu gehigarriak: Gertaera berean hil ziren Pedro Mari Isart Badiola, Dionisio Aizpuru Arbelaiz eta José Maria Izura Sanz, denak Komando Autonomoetako kideak. EAJk eta EEk salatu zuten ekintza hura “fusilamendu” bat izan zela. Bizirik ateratako lekuko bakarraren arabera (*Berria*, 2014/03/21), haietako bi metro bateko distantziara hil zituzten, lurrian inolako babesik gabe zeudenean. Autopsiak 113 jaurtigai kontatu zituen lau gazteen gorputzetan, eta oso gertutik egindako tiroak. Informazio gehiago nahi duenak, 1984ko maiatzaren 30eko *El País* egunkarira jo dezake. Kasuaren inguruko ikerketak birritan abiarazi dira, baita bertan behera utzi ere. 2011. urtean, akusazioak proba gehiago eskatu zituen.

4

Jose Maria Izura Sanz

Data: 1984/03/22.

Adina: 26 urte.

Non jaioa: Iruñea (Nafarroa).

Lanbidea: Lehenbizi ETAko kidea izan zen, eta Iparraldean errefuxiatuta zegoela pasatu zen CCAAetara. Oso gazte zelarik senide baten ile-apaindegian aritu zen, eta hortik zetorkion “Pelu” ezizena.

Egilea: Guardia Zibila eta Polizia.

Heriotza-lekua: Komando Autonomoetako bost kide Pasaiako badian sartu zirenean txalupa pneumatiko batean, Poliziako eta Guardia Zibileko agenteek, portuaren bi aldeetan jarriak, tiro egin zieten lehorreratzera zihoazela.

Prozedura: Su-armaz egindako tiroak, baita posta-tiroak ere.

Datu gehigarriak: Gertaera berean hil ziren Pedro Mari Isart Badiola, Dionisio Aizpuru Arbelaiz eta Rafael Delas Aizkorbe, denak Komando Autonomoetako kideak. EAJk eta EEk salatu zuten ekintza hura “fusilamendu” bat izan zela. Bizirik ateratako lekuko bakarraren arabera (*Berria*, 2014/03/21), haietako bi metro bateko distantziara hil zituzten, lurrean inolako babesik gabe zeudenean. Autopsiak 113 jaurtigai kontatu zituen lau gazteen gorputzetan, eta oso gertutik egindako tiroak. Informazio gehiago nahi duenak, 1984ko maiatzaren 30eko *El País* egunkarira jo dezake. Kasuaren inguruko ikerketak birritan abiarazi dira, baita bertan behera utzi ere. 2011. urtean, akusazioak proba gehiago eskatu zituen.

5

Luzia Urigoitia Ajuria

Data: 1987/07/23.

Adina: 28 urte.

Non jaioa: Otxandio (Bizkaia).

Bizilekua: Trintxerpe (Pasaia, Gipuzkoa).

Lanbidea, kargua, bestelakoak: Idazkaritza ikasi zuen. Baserrian laguntzen zuen. Haurrak zaintzen ibili zen. Bidezain jardun zuen Aldundirako. Brigadista joan zen Nikaraguara. ETako militantea zela, Iparraldera alde egin zuen 1985ean.

Egilea: Guardia Zibila.

Heriotza-lekua: Guardia Zibilaren eraso bat Trintxerpen bizi zen etxeari, ETaren kontrako polizia-operazio bateratu batean, Donostian, Pasaian eta Hernanin.

Prozedura: Su-armen tiroak, bi unetan botatakoak.

Datu gehigarriak: Autopsiaren arabera, tiroetako bat bi arra baino gutxiagotik bota zioten, lepoaren alde batean. Donostiako Instrukzioko 2. Epaitegiko epaile titularraren ustez, hildakoari "bi unetan" egin zioten tiro, eta burua zeharkatu zion bala "azala ia ukituz" bota zioten. 1987/07/25eko *El Independientek*, berriz, zalantzan jarri zuen "Guardia zibil batzuen portaera, beren kabuz jarrai baitute indarrean Ihes Legea, garondoan tiroa jota". Gipuzkoako gobernadore zibilak adierazi zuenez, "berme judizialak baino lehenagokoa da poliziaren eraginkortasuna". Akusazioak egon ziren "frogak faltsifikatu nahi izateagatik, bertsioa bat etor zedin ikerketaren emaitzekin", bai eta judizioz kanpoko esku-hartze bat ere, bala-zorro baten ordez beste bat jartzeko. 1997ko maiatzean, Justo Rodríguez epaileak argitara eman zuen "CESIDen informazio-ohar bat, orain desklasifikatua" (1997/05/13ko *El Mundo* eta *El País*). Zerbitzu sekretuen mikrofitxa batek zioenez, Guardia Zibileko kapitain bat (izena aipatzen da) "epailearen etxean sartu eta jaurtigai baten ordez beste bat ipini zuen", eta "balistika-laborategian kanoi bat ordezkatu eta balen aurkako txaleko bat manipulatu zen" (*El País*, 1999/09/11).

Erabilitako iturri eta zerrendak

- ABC: *ABC Especiales, Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas
- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.
- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.
- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkarte), www.argituz.org
- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/
- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.avt.org
- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/
- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.
- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarte). www.covite.org
- Egin: *Anuarios 1977-1982 eta Anuarios 1982-1997*.
- El Correo. <http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html>
- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html
- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com
- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumenta- zio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com
- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es
- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziounea. www.lbfundazioa.org
- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable*. www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/
- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.
- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.
- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org
- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf
- Vasco Press Agentzia: "Crónica de documentación y actualidad", 1.176. alea, 2004ko abuztua.
- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitz, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa*.